Balio ertainak dituzte zinemara eta musika-kontzertuetara joateak; **galdetutako hamar pertsonatik seik esan dute zinemara joan direla azken urtebetean**, eta %44k, berriz, kontzerturen batera joan dela denbora-tarte horretan bertan.

Gainerako jarduerak maila apalagoan egiten dira: **gutxiengoa joan da azken urtebetean museoetara (%38,4), liburutegietara (%36,5), galerietara eta erakusketetara (%30,4)**.

Hauek dira bertaratze gutxiena duten kultura-emanaldiak eta jarduerak, ordenan: **antzerkia (%25), bertsolaritza-emanaldiak (%18,1 elebidunen artean), dantza-emanaldiak (%9,9) eta opera (%4,9)**.

[1] Biztanle elebidunei bakarrik egin zaie ohitura honi buruzko galdera.

**15. irudia.** Pertsonak, Mendialdean azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)




**16. irudia.** Pertsonak, Iruñean azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)




**17. irudia.** Pertsonak, Erdialdean azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)




**18. irudia.** Pertsonak, Erriberan azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)




[1] Biztanle elebidunei bakarrik egin zaie ohitura honi buruzko galdera.

**Denbora-faltak eta kultura-jardueren kostuak eragozten dute gehiago joatea.** Antzerkiaren eta kontzertuen kasuan, eskaintza nahikoa ez dela ere adierazi dute, batik bat joateko ohitura dutenek.

**19. irudia.** Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Kontzertu gehiagotara joatea gustatuko litzaiekeen pertsonak, joateko ohitura dutenen %74,8

**20. irudia.** Zinemara gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Zinemara gehiago joatea gustatuko litzaiekeen pertsonak, biztanleen %57,7

**21. irudia.** Antzerkia ikustera gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Ikuskizun eszenikora gehiago joatea gustatuko litzaiekeen pertsonak, biztanleen %56,0

## 2.3. JARDUERA ETA KONTSUMO KULTURALEN EZAUGARRIAK

**Nafarroako kultura-jarduerek intentsitate handia dute, batik bat publiko minoritarioa dutenek.** Liburutegira joateko ohitura dutenak hilean 5,3 aldiz joaten dira; zinema-aretoetara joateko ohitura dutenak hiruhilekoan 3,4 aldiz joaten dira, eta antzerkira joateko ohitura dutenak, berriz, 1,8 aldiz denbora-tarte horretan bertan.

**22. irudia.** Azken hilabetean liburutegira joandako aldien batezbestekoa, eremu geografikoaren arabera




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hilabetean liburutegi batera joan diren pertsonak, biztanleen %25,0)

**Biztanleen erdiak, gutxi gorabehera, liburuak irakurri ditu azken hiruhilekoan, eta libururen bat erosi du denbora-tarte horretan bertan** (biztanleen %48,2).

**23. irudia.** Azken hilabetean irakurritako liburuen batezbestekoa, eremu geografikoaren arabera




Oinarria: Irakurtzeko ohitura dutenak (azken hilabetean aisialdiko liburuak irakurri dituzten pertsonak, biztanleen %47,7)

**Telebista- eta irrati-kontsumoa (txikiagoa, bigarrena) handiak dira.** Are gehiago, beste kontsumo batzuk ez bezala, ia biztanle guztiei dagokie.

**Astean musika entzuten emandako denbora 10,2 ordu dira, batez beste**; musika, berriz, biztanle gutxik erosten du.

**24. irudia.** Astean telebista ikusten eta irratia entzuten emandako orduen batezbestekoa, eremu geografikoaren arabera




Oinarria:Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %93,4

Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %74,4

**25. irudia.** Astean musika entzuten emandako orduen batezbestekoa, eremu geografikoaren arabera




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero edo ia egunero entzuten duten pertsonak, biztanleen %76,1)

**26. irudia.** Azken hiruhilekoan zinemara joandako aldien batezbestekoa, eremu geografikoaren arabera




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan zinemara joan diren pertsonak, biztanleen %45,8 )

**27. irudia.** Azken hiruhilekoan antzerkia ikustera joandako aldien batezbestekoa, eremu geografikoaren arabera




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan antzerki-emanaldietara joan diren pertsonak, biztanleen %11,8)

**28. irudia.** Azken hiruhilekoan erositako liburu-kopuruen batezbestekoa, eremu geografikoaren arabera




Oinarria: Azken hiruhilekoko irakurleetatik, epe horretan libururen bat erosi dutenak, biztanleen %48,2)

**29. irudia.** Azken hiruhilekoan liburuak irakurri eta erosi dituzten pertsonak, eremu geografikoaren arabera (%)




**30. irudia.** Azken hiruhilekoan musika erosi duten pertsonak, eremu geografikoaren arabera (%)




## 2.4. EUSKARAZKO JARDUERAK ETA EUSKAL PRODUKTUEN KONTSUMOA

**Nafarroako biztanle elebidunek lotura estua dute euskal musikarekin: elebidun gehienak kontzertuetara (%76,6) joaten dira eta euskal musika erosten dute (%66,9).** Bereziki altuak dira mendialdeko eta erdialdeko ehunekoak.

Euskarazko liburuen irakurketari dagokionez, biztanle elebidunen %45,4k irakurtzen du. **Noiz edo noiz antzerkira joan diren elebidunen %47,4k euskarazko emanaldiak ikusi dituzte.**

**31. irudia.** Pertsona elebidunak, azken hiruhilekoko euskal musikaren kontsumoaren eta eremu geografikoaren arabera (%)




**(1)** Oinarria: Noizbait musika erosi dutenak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanle elebidunen %55,9
**(2)** Oinarria: Azken hiruhilekoan kontzertuetara joan direnak, biztanle elebidunen %30,5

**32. irudia.** Pertsona elebidunak, euskarazko kultura-jardueren eta eremu geografikoaren arabera (%)




**(1)** Oinarria: Azken hiruhilekoan aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako libururen bat irakurri dutenak, biztanle elebidunen %70,8
**(2)** Oinarria: Azken urtebetean antzerki-emanaldietara joan diren pertsonak, biztanle elebidunen %26,4

**Biztanle elebidunen %18,1 bertsolaritza-emanaldietara joan da azken urtebetean.**

**33. irudia.** Pertsona elebidunak, bertsolaritza-emanaldietara joateko ohituraren arabera (%)




**Euskarazko kultura-edukietara sartzen diren Internauta elebidunen erdiek, gutxi gorabehera, web guneak eta dokumentazioa kontsultatzen dituzte**; %18k, berriz, musika entzuten edo deskargatzen du.

**34. irudia.** Pertsona elebidunak, Interneteko euskarazko edukietara sartzearen eta eremu geografikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Nolabaiteko jarduera kulturala egiteko sarera sartzeko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %49,4

## 2.5. INTERNET ERABILERA KULTURAREKIKO

**Internet kulturarako erabiltzea oso zabalduta dago Nafarroako biztanleen artean:** biztanleen %42,3k Internet erabiltzen du jarduera kulturalen baterako.

**Iruñea inguruko biztanleek erabiltzen dute gehien Internet kulturarako.**

Biztanleen profilari begiratuta, azpimarratzekoa da **gizonezkoek ohitura gehiago dutela jarduera kulturaletarako sarera jotzeko** (gizonezkoen %47,1ek eta emakumezkoen %37,6k).

**Elebidunak gehiago sartzen dira Interneten elebakarrak baino**: Diferentzia hori azaltzen du, neurri handi batean, bi biztanlerien piramidearen osaera oso ezberdina izateak.

**35. irudia.** Pertsonak, kultura-kontsumorako Internetera sartzearen eta eremu geografikoaren arabera (%)




**36. irudia.** Kultura-kontsumorako Internet erabiltzen duten pertsonak, eremu geografikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)



**Gazteek erabiltzen dute gehien sarea jarduera kulturaletarako.** 25 urtetik beherakoen sarbide-maila %70etik gorakoa da; 44 urtetik gorakoena, %40koa, eta 54 urtetik beherakoena, berriz, %25 baino txikiagoa.

**Ikasketa-maila altuagoa duten pertsonek gehiago erabiltzen dute:** goi-mailako ikasketak dituzten biztanle gehienek (hamarretik ia zazpik) Internet erabiltzen dute jarduera kulturaletarako; bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonen %50ek, gutxi gorabehera, eta lehen mailakoak dituztenen %30ek.

**37. irudia.** Pertsonak, Interneteko kultura-edukietara sartzearen arabera (%)




Oinarria: Kultura-kontsumoren bat egiteko Internet erabiltzen duten pertsonak, biztanleen %42,3

## 2.6. BESTE JARDUERA KULTURAL AMATEUR BATZUK EGITEKO OHITURA

**Galdetutako pertsonen herenak baino gutxiagok esan du jarduera kulturalen bat egin duela amateur gisa.** Jarduera horiek egiteko maila apur bat handiagoa da Erriberan; han, biztanleen %35 inguruk esan du jarduera kulturalen bat egiten duela.

**38. irudia.** Pertsonak, azken urtebetean beste kultura-jarduera batean izandako parte-hartzearen eta eremu geografikoaren arabera (%)




**Horrelako jarduerak egiten dituztenetatik, hauek nabarmentzen dira, ordena honetan: argazkilaritza** (jarduera kulturalen bat amateur gisa egiten duten pertsonen %28,6k egiten du), **marrazketa edo margolaritza** (%21,3), **instrumentu bat jotzea** (%19,3) **eta beste arte plastikoak** (%14,2).

**39. irudia.** Azken urtebeteko Nafarroako kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)




Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %32,2

**40. irudia.** Azken urtebeteko Mendialdeko kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)




Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %30,4

**41. irudia.** Azken urtebeteko Iruñeko kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)




Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %32,3

**42. irudia.** Azken urtebeteko Erdialdeko kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)




Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %28,7

**43. irudia.** Azken urtebeteko Erriberako kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)




Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %34,7

**Gazteenek eta 35 eta 44 urte artekoek egiten dituzte gehien jarduera kulturalak amateur gisa.**

**44. irudia.** Azken urtebetean beste kultura-jarduera batean parte hartu duten pertsonak, adin-taldearen arabera (%)




**Adinak eragina du jarduera amateurren modalitate bat edo bestea hautatzean.** Gazteenen artean, instrumentuak jotzeak pisu handia du; helduen artean, argazkilaritzak; beste arte plastikoek eta koruek, berriz, 64 urtetik gorakoen artean.

**45. irudia.** Pertsonak, azken urtebetean parte hartu duten kultura-jardueren eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Azken urtean jarduera kulturalak burutu dituzten pertsonak, biztanleen %32,2

## 2.7. ALDERAKETA EUROPAREKIN

**Atal honetan, alderaketa labur bat egin da Europako ohitura kulturalekin, Eurostaten eta Espainiako Kultura Ministerioaren informazioa erabilita.** Adierazle homologagarriak erabili dira, eta informazioaren erreferentzia-aldiak 2007 ingurukoak dira. Hala eta guztiz ere, iturri bat baino gehiagotatik eskuratutako datuen irakurketa alderatua kontu handiz egin behar da, metodologia-desberdintasun handiak daudelako, eta informazioa une batean baino gehiagotan jaso delako.

**46. irudia.** NAFARROAko eta EUROPAko kultura-adierezleen alderaketa (%)




(1) **Iturria:** *Nafarroako Foru Erkidegoko kultura -ohiturei, -praktikei eta kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008*, Kulturaren Euskal Behatokia
(2) **Iturria:** *Eurobarrometroa 67.1* , Eurostat, 2007
(3) **Iturria:** *Espainiako ohitura eta jarduera kulturalen inkesta 2006-2007,* Kultura Ministerioa

**Irakurketa horren adierazleen arabera, Europako batezbestekoaren gainetik dago Nafarroakoa, eta nahiko alde handia dago haren eta Espainiako datuen artean.** Liburuen irakurketa Europako batezbestekoa baino bost puntu handiagoa da; are alde handiagoa du Espainiako biztanleen datuarekin. Liburutegietara joatearen datua hurbilago dago 27 estatuen Europakotik Espainiako batezbestekotik baino.

**Zinemara eta kontzertuetara joatearen datuak ere handiagoak dira Nafarroan.** Espainiako batezbestekoak baino bost puntu gehiago, eta Europakoak baino sei gehiago ditu zinemara joateko ohituraren batezbestekoak. **Zuzeneko musikak are alde handiagoa du Europarekin** (Nafarroan biztanleen %44 joan da, eta 27 estatuen Europan, berriz, %37).

**Antzerkiak jende gehiago erakartzen du Europan** (%32). Nafarroa, alde horretatik, aztertutako bi erreferenteen erdian dago (%25).

# 3. IRAKURKETA ETA LIBURUTEGIAK



3.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

3.2. Datu estatistikoen aukeraketa

# 3. IRAKURKETA ETA LIBURUTEGIAK

## 3.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Irakurketarako interesa

**Nafarroan, biztanleek interes handia dute irakurketarako, kultura jarduera gisa** (6,9 puntu 0tik 10erako balorazio eskalan), eta batez ere liburuen eta egunkarien irakurketarako. Aldizkarien kasuan interesa txikiagoa da (4,5).

**Emakumeak, helduak eta hezkuntza-mailarik altuena duten pertsonak erakartzen ditu gehien jarduer a horrek**. Egunkarien irakurketa da salbuespena, gizonezkoei interesatzen baitzaie gehien; baita aldizkarien irakurketa ere, hori gazteenei interesatzen baitzaie gehien. Profil hori bat dator biztanleek adierazten dituzten jarduerekin (aurrerago aipatuko dira).

### Liburuak irakurtzea eta erostea

**Nafarroako biztanle gehienek aisialdian irakurtzen dute, eta nahiko sarri**. %58,9k aisialdian liburu bat irakurri du azken hiruhilekoan (%47,7k azken hilabetean, eta gainerako %11,2k hiruhilekoaren beste hilabeteetan). Espainiako Kultura Ministerioak[1] Espainia osorako egindako ohituren eta jardueren inkestako portzentajea baino 15 puntu gorago dago. Bestalde, biztanleen %18,5ek adierazi du aisialdian ez duela inoiz edo ia inoiz irakurtzen; %9,4k, berriz, adierazi du azken liburua orain dela urtebete baino gehiago irakurri zuela.

**Irakurtzeko ohitura dutenen artean (azken hilabetean irakurri dutenak), irakurritako liburuen batezbestekoa 1,7 ingurukoa da**. Gehienek liburu bat irakurri dute, baina nabarmentzekoa da irakurleen %16,2k hilean hiru liburu baino gehiago irakurri dituela.

**Erakutsitako interesarekin bat dator irakurleen profila: emakumezkoak, helduak, elebidunak eta unibertsitate-ikasketadunak dira gehienak**. Irakurtzeko ohitura dutenetatik, emakumezkoak gehiago dira gizonezkoak baino (emakumezkoak %52 eta gizonezkoak %43,5). Adinaren arabera, diferentzia handiak daude; 35 eta 44 urte arteko biztanleetan, irakurtzeko ohitura dutenen portzentajea %60tik gorakoa da; gazteetan eta 64 urtetik gorakoetan, berriz, %40. Biztanle elebidunetan, irakurtzeko ohitura duten pertsonen portzentajea handiagoa da elebakarretan baino: elebidunen %53,6k eta elebakarren %47,1ek irakurri dute liburu bat azken hilabetean. Azkenik, bizi diren eremuaren arabera,

[1] *Espainiako ohitura eta jarduera kulturalen inkesta (2006-2007)*, Kultura Ministerioa.

irakurtzeko ohitura duten pertsonen pisu erlatiboa apur bat handiagoa da Iruñea inguruan eta Erdialdean.

**Azken hiruhilekoan irakurri izan duten biztanle elebidunen erdiek baino gutxiagok (%45,4) esan dute euskarazko liburuak irakurtzen dituztela**. Gainerako %54,6k ez du euskaraz idatzitako liburURik irakurtzen, nahiz eta hizkuntza horretarako bezain beste ezagutu.

**Azken hiruhilekoan irakurri dutenetatik, ia erdiek erosi dute libururen bat (%48,2)**. Azken hiruhilekoan bosna liburu erosi dituzte batez beste kolektibo horretakoek.

**Saltoki txiki espezializatuak dira liburuak erosteko bide nagusia** (hala adierazi du irakurleen %58,7k); kate handietako denda espezializatuetara eta saltoki handietara joaten dira erosle horien %15-17.

**Erostea ez da, ordea, liburuak eskuratzeko bide bakarra; irakurtzeko ohitura duten lau pertsonatik batek** (%24,3) maileguan ere hartzen ditu liburuak.

## Egunkariak eta aldizkariak irakurtzea eta erostea

**Egunkariak irakurtzeko ohitura oso finkatuta dago Nafarroan**; hiru biztanletik bik adierazi du egunero irakurtzen dituela (%57,6k egunero edo ia egunero, eta %8,4k astean hiru edo lau egunetan), eta %7,6k, gutxi gorabehera, ez ditu inoiz edo ia inoiz irakurtzen. Espainia osoko adierazleen azpitik daude Nafarroakoak, Espainiako biztanleen %22,6k adierazi baitu inoiz edo ia inoiz ez duela egunkaririk irakurtzen[1].

**Aldizkariak irakurtzeko maiztasuna askoz txikiagoa da**: biztanleen %43,3k adierazi du astero irakurtzen dituela, eta erdiak baino gehiagok adierazi du ez dituela hain sarri irakurtzen (%33,5) edo ez dituela irakurtzen (%23,2).

**Gizonezkoek eta helduek irakurtzen dituzte gehien egunkariak; aldizkariak, berriz, emakumeek eta gazteek**. Heziketa-maila handiagoa duten pertsonek joera handiagoa dute horrelako produktuak irakurtzeko, liburuekin gertatzen zen bezala.

**Egunkariak astero irakurtzen dituzten pertsonek nahiko interes handia dute kulturaren arloko berrietarako**: irakurleen %45,4k adierazi du gehien interesatzen zaizkion gaietako bat dela, Gizartearen (%54,5) eta Politikaren ondoren (%45,6). Aldizkarien arloan, kultura-edukietarako interesa ez da

[1] *Espainiako ohitura eta jarduera kulturalen inkesta (2006-2007)*, Kultura Ministerioa.

hain handia, igandeetako gehigarriak (%52,4) eta bihotzeko aldizkariak (%22,9) daude interesik handiena sortzen duten aldizkarien rankingaren buruan, kultura-aldizkariak, berriz, irakurleen %16k aipatu dituzte.

**Astero irakurtzen duten elebidun gehienek ez dute euskarazko egunkaririk irakurtzen**: elebidunen %5,4k soilik adierazi du euskarazko egunkariak irakurtzen dituela batik bat, %37,4k, berriz, adierazi du euskarazkoak zein gaztelaniazkoak irakurtzen dituela.

**Erostea da egunkariak eskuratzeko modu nagusia** (azken astebetean irakurri dituzten irakurleen %80,7rentzat). Horrek ez du eragozten, ordea, **irakurle horien portzentaje handi batek (%25,3) doan eskuratzeko bideak erabiltzea**. Irakurleen %21,1ek sarri irakurtzen ditu egunkariak Internet bidez.

## Liburutegietara joatea

**Nafarroako biztanleen erdiek interes gutxi dute liburutegietarako**: hamarretik 3,7ko interes-maila adierazi dute. Interes-mailarik handienak adierazi dituzte 15 eta 44 urte artekoek eta unibertsitate-ikasketak dituztenek.

**Hiru biztanletik bat joan da liburutegira azken hiru hilabeteetan**; %56,4k, berriz, inoiz ez dela joaten adierazi du. Liburutegietako bertaratze-maila Espainiakoa baino handiagoa da, han ez baitu %15 gainditzen[1].

**Amaitutako ikasketa-maila handiagoa duten pertsonak gehiago joaten dira liburutegietara**. Unibertsitarioen artean, joateko ohitura dutenen portzentajea (azken hilabetean joan direnena) %40tik gorakoa da, bigarren hezkuntza edo lanbide heziketa ikasi dutenen artean, portzentaje hau %30era jaisten da, eta lehen hezkuntza ikasi dutenena doi-doi iristen da %20ra.

**Zenbat eta urte gehiago, orduan eta txikiagoa da liburutegietako bertaratze-maila**. 16 eta 44 urte artekoetan, azken hilabetean liburutegi batera joan dela esan du %40 inguruk, eta 45 urtetik gorakoetan, berriz, %15ek ere ez.

**Liburutegietarako bertaratzea askoz handiagoa da hiri-inguruetan, hau da, Iruñea inguruan eta Iruñean bertan bizi direnen artean, gainerako eremuetan baino**: Iruñeko biztanleen %28,8 joan da azken hilabetean liburutegiren batera; gainerako eremuetan, portzentajeak doi-doi gainditzen du %21.

[1] *Espainiako ohitura eta jarduera kulturalen inkesta (2006-2007)*, Kultura Ministerioa.

**Joateko ohitura dutenetatik, 5,3koa da bisita-kopuruaren batezbestekoa**. Bertaratzea askoz handiagoa da gazteenen artean (7,6 aldiz azken hilabetean) eta asko murrizten da urteetan aurrera egin ahala (35-54 urtekoak 4 aldiz, eta 54 urtetik gorakoak 3 aldiz).

**Liburutegira joateko arrazoi nagusia liburuen mailegua da** (%67); gero, arrazoi profesionalengatik zein aisialdirako liburuak ikustea (%31,4).

**Liburutegietara joaten direnek oso ongi altua** (hamarretik 7,9) **ematen diote zerbitzuarekin duten gogobetetze-mailari**. Ikerketatik ondorioztatzen da Nafarroako biztanleek ez dietela balorazio bereziki kritikorik egiten liburutegien kudeaketari edo kokapenari buruzko faktore espezifikoei: %15ek bakarrik adierazi du liburutegiek funts handiagoa beharko luketela.

## 3.2 DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**47. irudia.** Pertsonak, irakurketarako interes-mailaren arabera (%)




**48. irudia.** Irakurketarako interes-maila, eremu geografikoaren arabera (batezbestekoa)




**49. irudia.** Irakurketarako interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa)




**50. irudia.** Irakurketarako interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)



**51. irudia.** Irakurketarako interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa)




**52. irudia.** Pertsonak, liburuak irakurtzeko ohituraren arabera (%)




**53. irudia**. Aisialdiko liburuak irakurtzeko ohitura duten pertsonak, eremu geografikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Liburu-irakurtzeko ohitura dutenak (azken hilabetean liburuak irakurri dituztenak)

**54. irudia.** Irakurtzeko ohitura duten pertsonak, hilabetean irakurtzen duten liburu-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Irakurtzeko ohitura dutenak (azken hilabetean aisialdiko liburuak irakurri dituztenak, biztanleen %47,7)

**55. irudia.** Pertsona elebidunak, euskarazko liburuen irakurketaren eta eremu geografikoaren arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako libururen bat irakurri duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %70,8

**56. irudia.** Pertsona elebidunak, euskarazko liburuen irakurketaren eta sexuaren arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako libururen bat irakurri duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %70,8

**57. irudia.** Pertsona elebidunak, euskarazko liburuen irakurketaren eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako libururen bat irakurri duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %70,8

**58. irudia.** Pertsonak, azken hiruhilekoan erositako liburu-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan libururen bat irakurri duten pertsonak, eta epe horretan libururen bat erosi dutenak, biztanleen %48,2

**59. irudia.** Pertsonak, liburuak erosteko lekuaren eta eremu geografikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako liburuak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleen %84,3

**60. irudia.** Pertsonak, egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko ohituraren arabera (%)



**61. irudia.** Egunkariak irakurtzeko ohitura duten pertsonak, eremu geografikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Egunkariak irakurtzeko ohitura dutenak (astean hiru edo lau egunetan edo egunero edo ia egunero egunkariak irakurtzen dituzten pertsonak)

**62. irudia.** Aldizkariak irakurtzeko ohitura duten pertsonak, eremu geografikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Aldizkariak irakurtzeko ohitura dutenak (astean behin gutxienez aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonak)

**63. irudia.** Egunkariak irakurtzen dituzten pertsonak, interes gehien eragiten dieten berrien arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Astean behin gutxienez egunkariak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleen %87,4

**64. irudia.** Aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonak, lehentasunen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Hilean behin, gutxienez, aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleen %61,6

**65. irudia.** Pertsona elebidunak, egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko nahiago duten hizkuntzaren arabera (%)




**(1)** Oinarria: Astean behin, gutxienez, egunkariak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanle elebidunen %89,8
**(2)** Oinarria: Hilean behin, gutxienez, aldizkariak irakurtzen dituzten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %68,7

**66. irudia.** Pertsonak, egunkariak eta aldizkariak eskuratzeko moduaren arabera (erantzun ugari) (%)




**(1)** Oinarria: Astean behin, gutxienez, egunkariak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleen %87,4
**(2)** Oinarria: Hilean behin, gutxienez, aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleen %61,6

**67. irudia.** Pertsonak, liburutegiek sortzen dieten interes-mailaren arabera (%)




**68. irudia.** Liburutegiek sortzen duten interes-maila, eremu geografikoaren arabera (batezbestekoa)




**69. irudia.** Liburutegiek sortzen duten interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa)




**70. irudia.** Liburutegiek sortzen duten interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)




**71. irudia.** Liburutegiek sortzen duten interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa)



**72. irudia.** Pertsonak, liburutegietara/mediateketara joateko ohituraren arabera (%)




**73. irudia.** Liburutegietara/mediateketara joateko ohitura duten pertsonak, eremu geografikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (azken hilabetean liburutegi/mediateka batera joan diren pertsonak)

**74. irudia.** Liburutegietara/mediateketara joateko ohitura duten pertsonak, bisita-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hilabetean liburutegi/mediateka batera joan diren pertsonak, biztanleen %25)

**75. irudia.** Liburutegietara/mediateketara joateko ohitura duten pertsonak, bisita-kopuruaren eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hilabetean liburutegi/mediateka batera joan diren pertsonak, biztanleen %25)

**76. irudia.** Pertsonak, liburutegietara/mediateketara joateko arrazoien eta eremu geografikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Liburutegira joaten diren pertsonak, biztanleen %43,6

**77. irudia.** Pertsonak, liburutegietara/mediateketara joateko hobetu behar direla uste duten eta eremu geografikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




**78. irudia.** Pertsonak, liburutegiekin/mediatekekin duten gogobetetze-mailaren eta eremu geografikoaren arabera (%)




Oinarria: Liburutegira joaten diren pertsonak, biztanleen %43,6

# 4. MUSEOAK ETA ARTE-ZENTROAK



4.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

4.2. Datu estatistikoen aukeraketa

# 4. MUSEOAK ETA ARTE-ZENTROAK

## 4.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Museoek eta arte-zentroek sortzen duten interesa

**Museoek sortzen duten interes-mailan polarizazio handia dago biztanleen artean**: lautik bati oso interes txikia sortzen diete; bostetik bati, berriz, handia. Hori dela eta, **museoek eta arte-zentroek interes mugatua sortzen dute: biztanleei 4,7ko interesa sortzen diete museoek eta erakusketek, batez beste; arte-galeriek, berriz, 4koa**. Emakumeek, helduek eta unibertsitate-ikasketak dituztenek egiten dituzte baloraziorik positiboenak.

### Museoetara eta arte-zentroetara joateko ohitura

**Biztanleen %40 inguru joan da museo batera azken urtebetean**. Zehatzago esanda, Nafarroako biztanleen %14,6k, hau da, **7tik 1ek esan du azken hiruhilekoan museoren batera joan dela**; hiruhileko horretako bisita-kopuruen batezbestekoa 1,8koa da.

**Museoena baino txikiagoa da arte-zentroetako eta erakusketetako bertaratze-maila**. Nahiz eta biztanleen %15,4 joan den azken hiruhilekoan zentro horietako batera, biztanleen erdiek baino gehiagok esan dute ez dutela halako zentroetara joateko ohiturarik (%53,7k; museoen kasuan, %38,5 ziren). Ohiko bisitarietatik, azken hiruhilekoko bisita-kopuruaren batezbestekoa 1,7koa da.

**Iruñea inguruko biztanleen museoetako bertaratze-maila askoz handiagoa da gainerako eremuetakoa baino**. Iruñeko biztanleen %18,5 joan da museoren batera azken hiruhilekoan, eta %19,7 arte-zentroren batera. Portzentaje horiek %13z azpikoak dira, ordea, eremu geografiko guztiak elkartuz gero, bai museoei, bai arte-zentroei dagokienez.

**Halaber, amaitutako ikasketen maila aldagai garrantzitsua da museoetarako eta arte-zentroetarako/erakusketetarako bertaratze handiagoa edo txikiagoa azaltzeko**. Unibertsitarioen %25 joan da museoren batera azken hiruhilekoan, eta %27,6 erakusketaren batera; bigarren hezkuntzako ikasketak dituztenen artean, berriz, portzentaje hori %15-17 ingurukoa da, eta lehen hezkuntzako ikasketak dituztenen artean, %10ekoa.

**Emakumeak gehiago joaten dira museoetara** (emakumeen %15,8 eta gizonezkoen %13,5) **zein arte-zentroetara eta erakusketetara** (gizonezkoen %13,9 eta emakumezkoen %16,9). Galdetutako

pertsonen adina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da museoetara eta zentroetara sarriago joaten dela diotenen portzentajea (zaharrenen kolektiboa izan ezik).

**Museoetara egindako bisita gehienak** (3tik 2) **norberaren udalerritik kanpo** eta oporretan **egiten dira**: %48,9an Espainiako beste erkidego autonomoetako museoetara eta %10,9 atzerrikoetara. Hiriko bertako museoetara egindakoak %28,1 dira, eta %10,1 Nafarroako beste udalerri batzuetakoak.

**Arte-museoek erakarri dute jende gehien azken hiruhilekoan (%67,2)**. Beste museo batzuek ere nahiko jarraipen handia dute, hala nola arkeologiakoek eta historiakoek (%12,1) eta museo espezializatuek (%10,3).

Azkenik, **azken hiruhilekoan museoetara joan direla esan duten pertsonen batez besteko gogobetetze-maila oso handia da (8,2)**, eta oso antzekoa aztertutako profil guztietan.

## 4.2. DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**79. irudia.** Pertsonak, museoek eta arte-zentroek sortzen dieten interes-mailaren arabera (%)




**80. irudia.** Museoek eta arte-zentroek sortzen duten interes-maila, eremu geografikoaren arabera (batezbestekoa)




**81. irudia.** Museoek eta arte-zentroek sortzen duten interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa)




**82. irudia.** Museoek eta arte-zentroek sortzen duten interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)



**83. irudia.** Museoek eta arte-zentroek sortzen duten interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa)




**84. irudia.** Pertsonak, museoetara, arte-galerietara eta erakusketetara joateko ohituraren arabera (%)




**85. irudia.** Museoetara joateko ohitura duten pertsonak, eremu geografikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan museoetara joan diren pertsonak)

**86. irudia.** Arte-galerietara eta erakusketetara joateko ohitura duten pertsonak, eremu geografikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (arte-galerietara eta erakusketetara joan direnak azken hiruhilekoan)

**87. irudia.** Museoetara, arte-galerietara eta erakusketetara joateko ohitura duten pertsonak, bisita-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan museo batera joan diren pertsonak, biztanleen %14,6)

Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan arte-galerietara eta erakusketetara joan diren pertsonak, biztanleen %15,4)

**88. irudia.** Museoetara egindako bisitak, lekuaren eta eremu geografikoaren arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan museo batera joan diren pertsonak, biztanleen %14,6)

**89. irudia.** Museoetara egindako bisitak, tipologiaren eta eremu geografikoaren arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan museo batera joan diren pertsonak, biztanleen %14,6)

**90. irudia.** Museoetara joateko ohitura duten pertsonak, gogobetetze- mailaren eta eremu geografikoaren arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan museo batera joan diren pertsonak, biztanleen %14,6)

# 5. MUSIKA



5.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

5.2. Datu estatistikoaren aukeraketa

# 5. MUSIKA

## 5.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Musikarako interesa

**Musika da Nafarroako biztanleei interes gehien sortzen dien jarduera kulturala**: batez besteko interesa 7,4koa du, eta oso handia da oso interes handia adierazi duen kolektiboa (guztizkoaren %60 inguru). Kolektibo eta profil soziodemografiko gehienek interes handia dute, bereziki 35 urtez beherakoek (8tik gora).

**Musika-kontzertuetara joateko interesa txikiagoa da, ordea**: 5,9koa gaur egungo musikaren kasuan, eta 5 eskasekoa musika klasikoaren kasuan. Azken horrek oso interes gutxi eragiten dio lau biztanletik bati.

**Adinaren eta ikasketa-mailaren araberakoa da musika-kontzertuek eragiten duten interesa**. Musika klasikoaren kasuan, zenbat eta urte gehiago izan eta amaitutako ikasketek zenbat eta maila altuagoa izan, orduan eta interes handiagoa eduki ohi da. **Guztiz kontrakoa gertatzen da gaur egungo musikarekin: kontzertu horiek gazteenei interesatzen zaizkie gehien** (7,7, 16-24 urtekoen kasuan, eta 7,4, 25-34 urtekoen kasuan), eta behera egiten du zaharragoetan.

### Musika entzuteko ohitura

**Musika kontzienteki eta norberaren borondatez entzutea zabalduta dago jendearen ohituretan**. Hiru laurdenek baino gehiagok adierazi dute musika entzun ohi dutela eguneroko bizitzan, hau da, astean behin, gutxienez. Zehazki, biztanleen %58,9k esan du egunero edo ia egunero entzuten duela musika.

**Kolektibo eta talde soziodemografiko guztiek adierazi dute musika entzuteko ohitura dutela**; hala ere, 34 urtetik beherakoek beste kolektiboek baino gehiago entzuten dute (hamar gaztetik bederatzik baino gehiagok entzuten du musika astero, gutxienez).

**Musika entzuteko ohitura duten horien artean, dedikazioa edo intentsitatea 10,2 ordukoa da** (asteko ordutan neurtuta). Kasu horretan ere, 34 urtetik beherakoen artean dago ohiturarik handiena

(13 ordu inguru), txikiagoa 35-44 urtekoen artean (8-9 ordu astean), eta, askoz txikiagoa 64 urtetik gorakoen artean (7,1 ordu astean).

**Irratia eta musika-ekipoak erabiltzen dira gehien musika entzuteko**: ohitura hori duten hamar pertsonatik seik erabiltzen ditu. Tresna berriak, MP3ak edo ordenagailuak, esaterako, lau entzuletik batek erabiltzen ditu.

**Dena den, oro har gutxiago erabiltzen badira ere, gazteenen artean gehienek erabiltzen dituzte** (25 urtetik beherako gazteen %60k erabiltzen ditu musika entzuteko); beste tresna batzuk —irratia, esaterako— gazte horien %40k ere ez ditu erabiltzen.

**Etxean entzuteko ohitura dute askok** (hamarretik bederatzik); horren ondoren, autoan entzuten dute gehien (%47,5).

**Biztanleen gustuetan edo lehentasunetan erreferente komuna da pop-rocka**; hura aipatu da gehien (musika entzuteko ohitura duten guztien %59,9), eta alde handiarekin, gainera, 55 urtetik gorakoen artean izan ezik. Gainerako estiloak gogoko dituztenen portzentajea askotarikoa da, eta adinak eragiten ditu, logikoki, alderik handienak lehentasunak identifikatzean. **Musika klasikoa da 54 urtetik gorakoek gustukoen duten estiloetako bat; gazteenek, berriz, disko, tekno eta rap musika hautatzen dituzte, besteak beste**.

**Musika entzuteko ohitura duten hamar elebidunetatik ia bederatzik esan dute euskal musika entzuteko ohitura dutela**. Proportzio hori apur bat handiagoa da Mendialdean eta Erdialdean.

## Musika erosteko ohitura

**Gaur egun, nahiko alde handia dago musika entzuten dutenen eta erosten dutenen artean**: biztanle gehienek (%56,5) ez dute musikarik erosi orain dela urtebete baino gehiagotik. Nafarroako biztanleen %40 eskasek erosi dute musika azken urtebetean; %28,2k azken hiruhilekoan, eta gainerako %11k, azken urtebetean.

**Erosketa-maila txikia da gizonezkoetan zein emakumezkoetan eta belaunaldi guztietan, eta pixka bat handiagoa adin ertaineko kolektiboetan**. Azken hiruhilekoan musika erosi duten 25-44 urteko pertsonak biztanleen %35 baino zertxobait gehiago dira. Portzentaje hori %30eraino murrizten da gazteenen artean (16 eta 24 urte artekoetan), eta asko murrizten da 55 urtetik gorakoen artean.

**Goi-mailako ikasketak amaituta dituzten pertsonek dute musika erosteko ohitura handiagoa**: %40k esan du musika erosi duela azken hiruhilekoan, eta gainerako kolektiboetan baino jende gutxiagok erantzun du inoiz ez duela musikarik erosi. Bizilekuaren arabera, Iruñea inguruan eta Mendialdean azken hiruhilekoan musika erosi duen kolektibo handiagoa dago gainerako eremuetan baino.

**Pertsona elebidunek musika erosteko ohitura handiagoa agertu dute**. Alde handia dago azken hiruhilekoan musika erosi dutela adierazi duten elebidunen eta elebakarren artean (%36,6 eta %27,3, hurrenez hurren).

Beraz, arestian aipatutako entzute-mailen eta erosteko ohituren azterketa alderatua adinaren arabera egitean, **ondoriozta daiteke Internet bidez grabatutako musikak eta ordaindu gabeko musika -euskarrien trukeak gero eta garrantzi handiagoa duela**, batik bat, 35 urtetik beherakoetan (ez haietan bakarrik, hala ere).

**Pop-rocka dute gogokoen herritarrek, eta musika-motarik erosiena ere hori da** (inoiz musika erosi duten pertsonetatik %54,8k mota horretakoa erosi du); atzetik ditu musika klasikoa (%15,8) eta autore-musika (%14).

**Saltoki handietan erosten da gehienetan** (erosleen %55,4k adierazi du horrelako saltokietara joaten dela). Aurrea hartu diete denda espezializatuei saltoki handiek. Erdialdean eta Erriberan joaten dira gehien saltoki handietara.

**Erosle elebidun gehienek erosten dute euskal musika** (%66,9); elebakarrek baino askoz erosketa-maila handiagoa dute (%20,7).

## Kontzertuetara joateko ohitura

**Nafarroako bost biztanletik batek musika-kontzertuetara joateko ohitura du**: %21,1 joan da kontzerturen batera azken hiruhilekoan. Talde horretakoak 1,8 aldiz joan dira kontzertuetara, batez beste.

**34 urtetik beherakoek gainerako kolektiboek baino askoz ohitura handiagoa dute**. Azken hiruhilekoan kontzerturen batera joan dira 25 urtetik beherakoen %40 eta 25-34 urtekoen %26,6. 34 urtetik gorakoetan, berriz, portzentajeak ez du %20 gainditzen.

**Iruñea inguruan bizi direnak sarriago joaten dira**: %27 inguru joan da kontzerturen batera azken hiru hilabeteetan; gainerako eremuetan, 10 puntu gutxiago ditu portzentajeak.

**Elebidunek ohitura handiagoa dute kontzertuetara joateko** (%30,5) elebakarrek baino (%20,1) (bat dator musika entzuteko ohituraren datuekin).

**Pop-rocka (35 urtetik beherakoetan, batik bat) eta musika klasikoa (pertsona helduenetan) dira zuzeneko kontzertuetarako musika-estilorik gustukoenak**.

**Oso ohikoa da norbera bizi den udalerrian kontzertuak entzutea**; joateko ohitura dutenen %63,5ek aitortu du inoiz kontzerturen bat entzun duela bere herrian. Hala ere, Foru Erkidegotik kanpoko kontzertuetara joateko ohitura ez da oso handia: 4tik 1ek esan du Nafarroatik kanpoko kontzerturen batera joan dela.

**Denbora falta eta kostu ekonomikoa dira nahi baino gutxiago joateko arrazoi nagusiak**. Erdialdean, kostu ekonomikoa nabarmendu dute bereziki.

**Kontzertuetara joaten diren elebidunak sarri joaten dira euskal musikako kontzertuetara** (hala aitortu dute %76,6k). Bertaratze-maila horiek nabarmen areagotzen dira 35 urtetik beherakoetan eta 64 urtetik gorakoetan.





## 5.2. DATU ESTATISTIKOAREN AUKERAKETA

**91. irudia.** Pertsonak, musikak sortzen dien interes-mailaren arabera (%)




**92. irudia.** Musikak sortzen duen interes-maila, eremu geografikoaren arabera (batezbestekoa)




**93. irudia.** Musikak sortzen duen interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa)



**94. irudia.** Musikak sortzen duen interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)




**95. irudia.** Musikak sortzen duen interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa)




**96. irudia.** Pertsonak, musika entzuteko ohituraren arabera (%)



**97. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, eremu geografikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak)

**98. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, asteko ordu-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %76,1)

**99. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, asteko ordu-kopuruaren eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero edo ia egunero entzuten duten pertsonak, biztanleen %76,1)

**100. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, erabiltzen dituzten baliabideen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %76,1)

**101. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, erabiltzen dituzten baliabideen eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %76,1)

**102. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, entzuten duten lekuaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %76,1)

**103. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, entzuten duten lekuaren eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %76,1)

**104. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, lehentasunen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %76,1)

**105. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, lehentasunen eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %76,1)

**106. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musika entzutearen eta eremu geografikoaren arabera (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %79,7

**107. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musika entzutearen eta sexuaren arabera (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %79,7

**108. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musika entzutearen eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %79,7

**109. irudia.** Pertsonak, musika erosteko ohituren arabera (%)




**110. irudia.** Musika erosteko ohitura duten pertsonak, eremu geografikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Musika erosteko ohitura duten pertsonak (azken hiruhilekoan musika erosi duten pertsonak)

**111. irudia.** Pertsonak, erosten duten musika-motaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsonak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanleen %49,5

**112. irudia.** Pertsonak, erosten duten musika-motaren eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsonak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanleen %49,5

**113. irudia.** Pertsonak, musika erosten duten lekuaren eta eremu geografikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsonak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanleen %49,5

**114. irudia.** Pertsonak, musika erosten duten lekuaren eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsonak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanleen %49,5

**115. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musikaren erosketen eta eremu geografikoaren arabera (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsona elebidunak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanle elebidunen %55,9

**116. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musikaren erosketen eta sexuaren arabera (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsona elebidunak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanle elebidunen %55,9

**117. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musikaren erosketen eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsona elebidunak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanle elebidunen %55,9

**118. irudia.** Pertsonak, musika-kontzertuetara joateko ohituren arabera (%)




**119. irudia.** Musika-kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak, eremu geografikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Musika-kontzertuetara joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan musika-kontzertu batera joan diren pertsonak)

**120. irudia.** Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak, azken hiruhilekoko kontzertu-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Musika-kontzertuetara joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsonak, biztanleen %21,1)

**121. irudia.** Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak, kontzertu horietako musika-motaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika-Kontzertuetara joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsonak, biztanleen %21,1)

**122. irudia.** Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak, kontzertu horietako musika-motaren eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika-kontzertuetara joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsonak, biztanleen %21,1)

**123. irudia.** Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak, musika entzutera joan ohi diren lekuaren eta eremu geografikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika-kontzertuetara joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsonak, biztanleen %21,1)

**124. irudia.** Pertsonak, kontzertu gehiagotara ez joateko arrazoien eta eremu geografikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Kontzertu gehiagotara joatea gustatuko litzaieken pertsonak, joateko ohitura dutenen %74,8

**125. irudia.** Euskal musikako kontzertuetara joaten diren pertsona elebidunak, eremu geografikoaren arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %30,5

**126. irudia.** Euskal musikako kontzertuetara joaten diren pertsona elebidunak, sexuaren arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %30,5

**127. irudia.** Euskal musikako kontzertuetara joaten diren pertsona elebidunak, adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %30,5

# 6. IKUS-ENTZUNEZKOAK



6.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

6.2. Datu estatistikoen aukeraketa

# 6. IKUS-ENTZUNEZKOAK

## 6.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Telebista

**Telebista, biztanleria osoaren ohitura arrunta.** Biztanleriaren %93,4k ikusten du telebista normalean, eta ohitura hori nahiko orokorra da Nafarroako biztanleen artean, ez baita aurkitzen ezberdintasun nabarmenik generoari, adinari edo biztanleria hori bizi den udalerriaren tamainari dagokienez.

**Normalean telebista ikusten dutenen asteko kontsumoaren batezbestekoa 17,1 ordukoa da**, eta honela banatzen da: lanegunetan, 2,4 ordu batez beste; larunbatetan, 2,5, eta igandeetan eta jaiegunetan, 2,6.

**Telebistaren asteko kontsumoa asko igo da adin handiagoko biztanleen artean (astean 21,6 ordu, batez beste)**, eta biztanlea gazteagoen artean nahiko jaitsi da (astean 14,2 ordu, 15 eta 24 urtekoen artean). Emakumeek zein pertsona elebakarrek denbora gehiago ematen dute astean telebista ikusten.

**Berriak lehentasun-rankingaren buruan daude**, kontsumitutako programei dagokienez, ikusleen %75,4k aukeratzen baitute programa-mota hori; aldiz, filmak (%48,3) eta telesailak (%45,4) aukeratzen dituztenak nabarmen gutxiago dira.

**Gizonezkoek kirolak ikusteko joera dute; emakumezkoek, aldiz, telesailak eta lehiaketak dituzte gustukoen.** Adinaren arabera, berriek lehentasuna galtzen dute gazteen artean (25 urte baino gutxiago), eta telesailek eta filmek, aldiz, irabazi.

### Irratia

**Normalean irratia entzuten duten biztanleak (%74,4) telebista ikusten dutenak baino gutxiago dira (%93,4) .**

**Ohiko entzuleek astean kontsumitzen duten guztizko batezbestekoa telebista-kontsumoaren batez bestekoaren pixka bat azpitik dago.** Izan ere, kontsumoa 16,7 ordukoa da, astean —

telebistaren kontsumo-orduak baino 0,4 ordu gutxiago—, eta honela banatzen dira: lanegunetan, 2,7 ordu, batez beste; larunbatetan, 2,5; igande eta jaiegunetan, 2,6.

**Irrati-kontsumoaren maila desberdinen faktore nagusia, adina**. 15 eta 24 urte bitarteko gazteen artean asteko kontsumoa 10 ordura iritsi ez arren, 25 eta 45 urte bitartekoen kontsumoa 16 ordu ingurukoa da, eta 54 urtetik gorakoena, 19 ordukoa. **Hemen ere, emakumezkoek eta elebakarrek dute kontsumo-mailarik handiena**.

**Irrati-entzuleek diote musika-saioak dituztela gogokoenak** (%67,7aren irratsaiorik gustukoena edo ohikoena da). Hala ere, telebistaren kasuan bezala, **berriek ere lehentasun handia daukate entzuleen artean** (%66,6).

**Musika da protagonista nagusia 34 urtetik beherako gazteen artean; berriak, berriz, 54 urtetik gorakoen artean**.

## Euskarazko telebista eta irratia

**Biztanle elebidunaren zati handi batek euskarazko telebista kontsumitzen du, normalean**. Hortaz, pertsona elebidunen %85 baino gehiagok euskarazko telebista kontsumitzen du normalean. Elebidunen euskarazko telebista kontsumoaren orduen ehuneko batezbestekoa kontsumitutako ordu guztien %40a da lanegunetan; asteburuetan, aldiz, %36koa.

**Euskarazko irratsaioen kontsumoa telebistaren kontsumoa baino pixka bat txikiagoa da elebidunen artean**. Lanegunetan, irrati-entzule elebidunen %22,5ak ez du euskarazko irratirik kontsumitzen; ehuneko hori %40,7ra iristen da larunbatetan, eta %50 ingurura igandeetan eta jaiegunetan. Hala ere, irratian telebistan baino euskarazko saio gehiago entzuten dira, bereziki lanegunetan, irratiaren guztizko kontsumoaren %50 baino gehiago baita.

## 6.2. DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**128. irudia.** Telebista ikusten emandako ordu-kopurua (%)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %93,4

**129. irudia.**Telebista ikusten emandako ordu-kopurua, eremu geografikoaren arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %93,4

**130. irudia.**Telebista ikusten emandako ordu-kopurua, sexuaren arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %93,4

**131. irudia.** Telebista ikusten emandako ordu-kopurua, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %93,4

**132. irudia.** Telebista ikusten emandako ordu-kopurua, hizkuntza-gaitasunaren arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %93,4

**133. irudia.** Pertsonak, telebista-programetako lehentasunen eta sexuaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %93,4

**134. irudia.** Pertsonak, telebista-programetako lehentasunen eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %93,4

## 135. irudia. Irratia entzuten emandako ordu-kopurua (%)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %74,4

## 136. irudia. Irratia entzuten emandako ordu-kopurua, eremu geografikoaren arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %74,4

## 137. irudia. Irratia entzuten emandako ordu-kopurua, sexuaren arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %74,4

**138. irudia.** Irratia entzuten emandako ordu-kopurua, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %74,4

**139. irudia.** Irratia entzuten emandako ordu-kopurua, hizkuntza-gaitasunaren arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %74,4

**140. irudia.** Pertsonak, irrati-programetako lehentasunen eta sexuaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %74,4

**141. irudia.** Pertsonak, irrati-programetako lehentasunen eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %74,4

**142. irudia.** Biztanle elebidunek euskarazko telebistak ikusten ematen duten denbora (%)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %93,8

**143. irudia.** Biztanle elebidunek euskarazko irratiak entzuten ematen duten denbora (%)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %74,8

# 7. ZINEMA



7.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

7.2. Datu estatistikoen aukeraketa





# 7. ZINEMA

## 7.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Zinemarako interesa

**Herritarrek zinemarako duten interesa nabarmena da**. Izan ere, 5,8ko batez besteko puntuazioa (10etik) jasotzen du, hau, musikaren antzekoa eta irakurketak baino txikixeagoa.

**Zinemarako interes nabarmena duten pertsona-multzo nahiko handia dago**. Biztanleen erdiak baino gehiagok zinemarekiko interesa adierazi dute, eta 7 eta 10 bitarteko batezbesteko balorazioa eman diote. Gutxi dira, beraz, zinemarekiko interes gutxi dutenak.

**Gazteek zinemazaletasun nahiko handiagoa adierazten dute helduek baino**. Biztanleen adina txikituz doan heinean, jarduera kultural honen inguruan egindako balorazioek ere behera egiten dute.

### Zinemara joateko ohitura

**Biztanleen ia erdiak maiz joaten dira zinema-aretoetara**: %28,7 azken hilabetean behin joan da, eta %18,7, behin azken hiru hilabeteotan. Aldiz, ehuneko nahiko handia (%42,6) ez da joan zinemara azken urtean.

**Adina funtsezko faktorea da zinemara sarri joaten direnen eta ez direnen arteko aldea azaltzeko.** Gazteenen artean (15 eta 24 urte bitartean) %78,6 joan dira zinemara azken hilabetean; aldiz, 45 urte baino gehiagokoen artean %40 baino gutxiago joan dira; 64 urtetik gorakoen artean, berriz, %20 inguru. Era berean, handiagoa da Iruñean bizi direnen artean zinemara joaten direnen kopurua aztertutako gainerako lur-eremuetakoa baino (%52,3 joan zen azken hilabetean filmen bat ikustera han; %42, Erriberan, eta ia %35 Mendialdean eta Erdialdean).

**Normalean zinema- aretoetara joaten direnak sarritan joaten dira**: azken hiru hilabeteetan, behin edo behin joan direnen batezbestekoa 3,4koa da.

**Zinema-aretoetara joateko interes handiagoa dago**. Nafarroako biztanleen erdiek baino gehiagok (%57,7) zinemara sarriago joan nahi lukeela diote. Hauek dira, eta ordena honetan, ez joatearen arrazoiak: denbora falta (arrazoi hori aipatzen dutenen arteko %51k adierazi du), eta kostu ekonomikoa (%40,7).

## Zinema-kontsumoa beste formatu batzuetan

**Biztanleen artean, zinema beste formatu batzuetan kontsumitzeko ohitura oso finkatua dago**. Hamar biztanletik 6k baino gehiagok (%65,2) beste formatu batzuetan kontsumitzen du zinema; %36,0k sarri kontsumitzen duela adierazi du (asteburuetan, gutxienez), eta erdia baino gehiago (%53,5) hilean behin edo gutxiagotan joaten da.

**Adina da faktore nagusietakoa zinema beste formatu batzuetan kontsumitzeko**. Gazteen artean (34 urte baino gutxiago), 10etik 9k kon tsumitzen dute zinema DVDan, bideoan edo beste formatu batzuetan; 54 urtetik gorakoen artean, berriz, nabarmen jaisten dira portzentajeak (54 eta 64 urte bitarteko biztanleen erdiek, eta %25 baino gutxiago 64 urtetik gorakoek). Zenbat eta handiagoa kontsumitzailearen hezkuntza-maila, orduan eta handiagoa kontsumoa.

**Bideoak eta DVDak eskuratzeko, bideoklubetan alokatzea da, oraindik ere, biderik ohikoena; hala ere, gero eta film gehiago jaisten dituzte gazteek Internetetik**.

## 7.2. DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**144. irudia.** Pertsonak, zinemak sortzen dien interes-mailaren arabera (%)




**145. irudia.** Zinemak sortzen duen interes-maila, eremu geografikoaren arabera (batezbestekoa)




**146. irudia.** Zinemak sortzen duen interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa)




**147. irudia.** Zinemak sortzen duen interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)




**148. irudia.** Zinemak sortzen duen interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa)



**149. irudia.** Pertsonak, zinemara joateko ohituraren arabera (%)




**150. irudia.** Zinemara joateko ohitura duten pertsonak, eremu geografikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-maila eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohiturak dutenak (azken hiruhilekoan zinemara joan diren pertsonak)

**151. irudia.** Zinemara joateko ohitura duten pertsonak, joandako emanaldien arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan zinemara joan diren pertsonak, biztanleen %45,8)

**152. irudia.** Pertsonak, zinemara gehiago ez joatean eragina duten arrazoien eta eremu geografikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Zinemara gehiago joatea gustatuko litzaieken pertsonak, biztanleen %57,7

**153. irudia.** Pertsonak, zinema beste formatu batzuetan kontsumitzeko ohituren arabera (%)



**154. irudia.** Zinema beste formatu batzuetan kontsumitzen duten pertsonak, eremu geografikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Zinema beste formatu batzuetan kontsumitzen duten pertsonak (egunero edo ia egunero, astean behin baino gehiagotan, asteburuetan, hilean behin baino gehiagotan edo gutxiago)

**155. irudia.** Pertsonak, bideoak eskuratzeko moduaren eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Zinema beste formatu batzuetan kontsumitzen duten pertsonak (egunero edo ia egunero, astean behin baino gehiagotan, asteburuetan, hilean behin baino gehiagotan edo gutxiago), biztanleen %65,2

# 8. ARTE ESZENIKOAK ETA BERTSOLARITZA



8.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

8.2. Datu estatistikoen aukeraketa





# 8. ARTE ESZENIKOAK ETA BERTSOLARITZA

## 8.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Arte eszenikoetarako interesa

**Antzerkiak beste kultura-jarduera batzuen besteko zaletasuna sortzen du,** baina ohiko zaleak ugariagoak ditu (5,1, 0tik 10erako eskalan). **Antzerkiarekiko zaletasuna ez da berdina sektore guztietan.** Bost biztanletik ia bik interes handia edo oso handia (7 eta 10 bitartekoa) adierazten dute. Proportzio hori zaletasun txikiagoa dutenen antzekoa da (0 eta 4).

**Dantzak eta lirikak ez dute, batez beste, zaletasun handirik sortzen** (3,6 eta 3,3, hurrenenez hurren). Bi jarduera horiekiko zaletasuna oso txikia (0 eta 2 artekoa) agertzen duten pertsona-kopuru nahiko handia (%40 ingurukoa) dago; aldiz, dantza eta lirikarako interes oso handia (8 eta 10 artekoa) daukatenak%15 eta %10 baino ez dira, hurrenez hurren.

**Emakumezkoek gizonezkoek baino zaletasun handiagoa adierazten dute arte eszenikoekiko**: antzerkiarekiko zaletasunari 5,7ko puntuazioa ematen diote (gizonezkoek, 4,6); dantzarekikoari, berriz, 4,2koa (gizonezkoek, 2,9).

**Unibertsitate-ikasketak dituzten biztanleen zaletasun-maila gainerako taldeena baino nabarmen handiagoa da, hiru jardueretan.** Izan ere, trebakuntza-maila txikiagokoen zaletasun-maila baino puntu 1 edo 2 gehiagoko balorazioa ematen diete, batez beste.

### Arte eszenikoetara joateko ohitura

**Ikuskizun eszenikoetara jende gutxi joan ohi da, batez ere dantza- edo lirika-saioetara.** Biztanleen %3,9 bakarrik joan dira dantza-ikuskizunetara azken hiru hilabetetan; gainerako %6a, azken urtean. Hortaz, 10 biztanletik 9 ez dira joan dantza ikuskizunik ikustera azken urtean. Lirika ikustera, berriz, are gutxiago joaten dira. Izan ere, biztanleen %2 ere joan dira azken hiru hilabetetan ikuskizunen batera; gainerako %2,9, azkeneko urtean.

**Antzerki-ikuskizunetara, jende gehiago joaten da**. Biztanleen %11,8 antzerki-ikuskizunen batera joan dira ikerketa egin aurreko hiru hilabeteetan; gainerako ia %13,2k azken urtean joan direla adierazi dute. Hortaz, 4 biztanletik 3 ez dira joan antzerki-ikuskizunik ikustera azken urtean.

Nafarroako biztanleen artean hiru kultura jarduera hauetara joateko ohitura Estatukoen artean baino handiagoa da[1]. Diferentzia honek nabarmenagoak dira lirika eta dantza ikuskizunetan.

**156. irudia.** Pertsonak, arte eszenikoetarako bertaratzearen arabera. Nafarroaren eta Espainiaren alderaketa (%)




**Iturriak:** Eusko Jaurlaritzaren *Nafarroako Foru Erkidegoko kultura-ohiturei, -praktikei eta –kontsumoari buruzko inkesta,* 2007-2008 eta Espainiako Kultura Ministerioaren *Espainiako ohitura eta jarduera kulturalen inkestaren* arabera egina

Hala ere, **joaten direnen portzentajeak txikiak izan arren, ohiko ikusleak leialak izaten dira eta maiz joaten dira ikuskizun horietara, dantza-saioetara bereziki**. Azken hiru hilabeteetan lirika-ikuskizunetara joan direla diotenak 1,2 aldiz joan dira; antzerki-ikuskizunen kasuan, 1,8 aldiz; dantza-ikuskizunei dagokienez, 2,3 aldiz ere joan izan dira.

**Amaitutako ikasketa-maila da faktorerik garrantzitsuena, hemen ere, ikuskizun horietara joateko ohituraren eragileetan,** bereziki antzerki-ikuskizunetan eta, maila apalagoan, dantza-ikuskizunetan. Goi-mailako ikasketak dituztenetatik %20k antzerki-emanaldietara joateko ohitura dute; lehen heziketako ikasketak dituztenetatik, %10ek; bigarren heziketakoak dituztenetatik, %2,5ek.

**Emakumeak gizonak baino sarriago joaten dira antzerki- eta dantza-emanaldietara; ez, ordea, ikuskizun lirikoetara.** Adinaren arabera begiratuta, 25-44 urtekoak joaten dira gehien antzerki- eta dantza-emanaldietara; lirikara, berriz, adin horretakoak eta 64 urtetik gorakoak joaten dira gehien.

**Bizilekuaren arabera aztertuta, Iruñea inguruan bizi direnak joaten dira gehien ikuskizun horietara.**

**Biztanleen erdiak baino gehiagok (%56,0k) esan du horrelako ikuskizun gehiagotara joan nahi lukeela.** Ez joateko hiru arrazoi nagusiak hauek dira, ordena honetan: denbora-falta (%46,4), eskaintza nahikorik ez izatea (%28,7) eta kostu ekonomikoa (%23,2).

[1] Ikuskizun eszenikoetara joan diren biztanleak, inoiz edo ia inoiz joan ez direla adierazi dutenak izan ezik.

**Antzerki-emanaldietara joan diren elebidunen (%26,4) %47,4k euskarazko ikuskizunen bat ikusi dute**.

## Bertsolaritza[1]

**Biztanle elebidunek interes handiagoa adierazi dute bertsolaritzarekiko (5,7 puntu) beste jarduera kulturaletan baino, gainerako ikuskizun eszenikoetan, esaterako.** Galdetutako pertsona askok (hamarretik hiruk, gutxi gorabehera) 5 eta 6 puntu arteko balorazioa eman diote, batez beste, eta 5etik 2k, gutxi gorabehera, oso balorazio positiboa(7 eta 10 puntu artean). Horregatik du halako batezbesteko positiboa.

**Biztanle elebidunen %18,1 bertsolaritza-emanaldiren batera joan da azken urtebetean**; %7,0 azken hiruhilekoan, eta gainerako %11,1, urtean zehar. Hamarretik seik, berriz, inoiz edo ia inoiz ez direla joaten aitortu dute.

[1] Bertsolaritzari buruzko datuak biztanleria elebidunari dagozkionak dira, gainerako diziplina guztietan biztanleria osoa hartu da kontutan.

## 8.2. DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**157. irudia.** Pertsonak, arte eszenikoek sortzen dieten interes-mailaren arabera (%)




**158. irudia.** Arte eszenikoek sortzen duten interes-maila,eremu geografikoaren arabera (batezbestekoa)




**159. irudia.** Arte eszenikoek sortzen duten interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa)




**160. irudia.** Arte eszenikoek sortzen duten interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)



**161. irudia.** Arte eszenikoek sortzen duten interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa)




**162. irudia.** Pertsonak, antzerkia ikustera joateko ohituraren arabera (%)




**163. irudia.** Pertsonak, lirikara joateko ohituraren arabera (%)




**164. irudia.** Pertsonak, dantza-ikuskizunetara joateko ohituraren arabera (%)




**165. irudia.** Pertsona elebidunak, bertsolaritza-emanaldietara joateko ohituraren arabera (%)



**166. irudia.** Antzerkia ikustera joateko ohitura duten pertsonak, eremu geografikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan antzerkira joan diren pertsonak)

**167. irudia.** Lirikara joateko ohitura duten pertsonak, eremu geografikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan lirikara joan diren pertsonak)

**168. irudia.** Dantza-emanaldietara joateko ohitura duten pertsonak, eremu geografikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan dantza-emanaldietara joan diren pertsonak)

**169. irudia.** Bertsolaritza-emanaldietara joateko ohitura duten pertsona elebidunak, sexuaren, adin-taldearen, eta ikasketa-mailaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan bertsolaritza-emanaldietara joan diren pertsona elebidunak)

**170. irudia.** Ikuskizun eszenikoetara joateko ohitura duten pertsonak, emanaldi-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan arte eszenikoen ikuskizunetara joan diren pertsonak:antzerkia %9,2, lirika %3,6, dantza %3,6 eta bertsolaritza %8,7)

**171. irudia.** Pertsonak, ikuskizun eszenikoetara gehiago ez joatean eragina duten eremu geografikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Arte eszenikoen ikuskizunetara gehiago joatea gustatuko litzaieken pertsonak, biztanleen %50,9

**172. irudia.** Pertsona elebidunak, azken urtebetean euskarazko antzerki-ikuskizunetara joan diren aldien arabera (%)




Oinarria: Azken urtebetean antzerki-emanaldietara joan diren pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %24,5

**173. irudia.** Pertsona elebidunak, azken urtebetean euskarazko antzerki-ikuskizunetara joan diren aldien eta sexuaren arabera (%)




Oinarria: Azken urtebetean antzerki-emanaldietara joan diren pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %24,5

# 9. METODOLOGIA



## 9. METODOLOGIA

Estatistika-eragiketa honen helburu orokorra da Nafarroan bizi diren 15 urtetik gorako pertsonen egoera aztertzea, ohitura, jarduera eta kontsumo kulturalari eta euskal kulturari dagokiena, batik bat. Jarduera kultural batzuek sortzen duten interesaren, jarduera kulturalen maiztasunaren eta intentsitatearen eta eguneroko kultura-kontsumoaren ezaugarrien irudi erreala izatea da azterketaren helburua.

Inkestaren emaitzak bateragarriak izan daitezke Eurostatek edo Espainiako Kultura Ministerioak sustatutako ikerketekin, informazio-helburu eta adierazle berak erabili dira eta; hala ere, emaitzak alderatzean, kontuan hartu behar da inkestak ez direla une eta garai berean egin.

### Kontzeptu orokorrak

Oro har, oinarrizko hiru kontzepturi buruzko informazioa eskatu da, eta, ondoren, zeharka erabili da informazio hori aztertutako azpiatal bakoitzean:

**Interes-maila:** galdetutako pertsonak jarduera kultural jakin batzuetarako duen zaletasuna jasotzen du. Informazioa ahalik eta zehatzena izateko, jarduera bakoitzari puntuazio bat emateko eskatu da, 0 eta 10 arteko eskalan.

**Ohitura:** aztertutako pertsonek jarduera kultural batzuen aurrean duten ohiko portaeraren adierazle orokorra da.

**Jarduera:** maiztasunari eta intentsitateari egiten dio erreferentzia —zenbat aldiz joan diren edo zenbat denbora pasatu duten jarduera jakin bat egiten— epealdi jakin baten barruan (azken hiruhilekoa, azken urtea… ).

### Ficha técnica

**EREMU GEOGRAFIKOA**
Nafarroako Foru Erkidegoa.

**INFORMAZIO-BILKETA**
Telefono bidezko elkarrizketa gaztelaniaz eta euskaraz, galdera-sorta egituratu bidez.

**UNIBERTSOA**
Nafarroako Foru Erkidegoko 15 urtetik gorako herritarrak.

**LAGINAREN NEURRIA**
1.461 elkarrizketak.

**LAGINAREN ERRORE-MARJINA**
Laginaren errore-marjina $\pm$ %2,6koa da, %95eko konfiantza-mailarekin eta gehienezko indeterminazioaren suposizioarekin (p=q=%50).

**LAGINKETA-PROZEDURA**
Etapa anitzeko laginketa bi etapetan: lehen unitateak (etxebizitzak), telefono-zenbakien ausazko hautaketa bidez. Bigarren unitateak (norbanakoak), sexuaren, adinaren, euskararen ezagutzaren, eremu geografikoaren eta eta udalerriaren tamainaren arabera.

**INKESTA EGIN ZEN DATA**
2007ko urtarrilaren 18aren eta 2008ko otsailaren 8aren artean.